# AGINTARIAK ETA LANGILERIA

## Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

### 2290

*403/2021 EBAZPENA, martxoaren 26koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez Miren Josu Ormaechea Legarreta andrea hautatzen den Bilbo-Basurtuko Erakunde Sanitario Integratuaren Langileen Zuzendari lanpostua betetzeko.*

Aztertua izan da Bilbo-Basurtuko Erakunde Sanitario Integratuaren Langileen Zuzendari lanpostua betetzeko deialdia. Deialdi hori Zuzendaritza Nagusiaren otsailaren 24ko 285/2021 Ebazpenaren bidez argitaratu zen, 2021eko martxoaren 5eko EHAAn (47. zk.).

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da eta lanpostu horretan jarduteko hautagaiek aurkeztu dituzten agiriak aztertu dira. Haren baldintza profesionalak jasotako merezimenduen arabera baloratu dira.

Aurkeztutako agiriak ikusita, Miren Josu Ormaechea Legarreta andrea deialdiko lanposturako aproposa dela eta bertan jarduteko trebakuntza egokia duela ikusi da.

Hori guztia dela-eta, Zuzendaritza Nagusiak honako hau,

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Miren Josu Ormaechea Legarreta andrea Bilbo-Basurtuko Erakunde Sanitario Integratuaren Langileen Zuzendari izendatzea.

Bigarrena.– Izendapen horrek 2021eko apirilaren 1etik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko martxoaren 26a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.